

HISTORIA TXATALAK

Noiz eta nola iritsi zen piñua Oñatira

>Gaztainondoa, pagoa eta, neurri txikiagoan, haritza ziren nagusi Oñati inguruko basoetan antzina. Baina XIX. mende erdialdera espezie berri bat agertu zen gure inguruetan: piñua. Eta berehala zabaldu zen Oñatin, espezie honen ekoizlerik handiena bihurtzeraino probintzia mailan.

Francisco de Elorza (Elorza generala) izan zen piñua ekarri zuena. Turbiako (Asturias) kañoi fabrikako zuzendaria zela, piñua ezagutu zuen hango mendietan, eta pentsatu zuen *Alertze* eta *Larizio* landare batzuk bidaltzea Oñatira, bere lagun eta gerora Oñatiko alkate izango zen Juan Carlos Alzaá-ren bitartez, San Juan Artixa eta Berotegi baserri inguruetan landatzeko. 1860 inguruan izango zen, probintziako gainerako herritetan pinua artean ezezaguna zenean.

Handik gutxira, gainera, herriko buruzagi karlista bat itzuli zen herrira. Atzerrialdian Landetako pinudiak ezagutu zituen eta aroztegi batean lanean ibilia zen. Beraz, herrira itzuli berritan Oñatiko lehen zerrategia zabaldu zuen, pinuak landatzen zituen bitartean, Frantziatik ekarritako haziekin. Sukar honek bultzatuta, ordura arte bazka-larre izandako asko pinuz betetzen hasi ziren.

Urruxola

> Jerardo Elortza

Auzo hau ere aldapatsua da, ba, baten bat izatekotan. Batez ere, Aitzgain eta Orkatzategi azpiko malda malkartsuetan hedatzen da, aldats beheako kokapen deserosoan. Ez dira baserri eta etxe asko jaso eremu nekoso horretan, baina, hala ere, **nortasun bereziari eutsi dio Urruxolak** historian zehar: **besteren artean, elizatea da bere parrokia eta gutti; bi bainuetxe egon dira** hainbat denboran bertan; eta Oñatiko **ur-saltoen sistema** aberatsenak auzo horretan dauka amaierako bihotza.

Urruxolako eliza ederrak parrokia kategoria dauka eta hainbat mendetan, **1960ko hamarkadara arte, abadea bizi izan zen auzoan**. Egia da, baserri gutxitxo izatean, ez zituela erretoreak diru-iturri oso oparoak lortuko. Horregatik, beharbada, idatzi zituzten XIX. gizaldirian han egondako bi apaizek *Ritual urrejolano* izeneko txosten bitxi eta interesgarriak, euren ondoren etorriko ziren parrokoiei urruxolatarrekin “zuzen” jiratzeko aholkuak emanez; bide batez, auzoko ohitura eta pentsamoldeei buruzko albiste kuriosoak irakur ditzakegu idazlan horietan.

Oñatin izandako **bainuetxe biak** Urruxolakoak ziren. Base-

Auzo txikia izan arren, nortasun bereziari eutsi dio Urruxolak

rri-girokoak bata zein bestea: **Errotakoa** eta **Garaikoa**, hain zuzen ere. **Usain sarkorreko uratsak** zituzten, hainbat gaitzen aringarri. XIX. mendean hasita, Errotakoa duela 50en bat urtera arte eduki zituen bezeroak eta mantentzen ditu bainuetxe izan zen garaiko aztarnak. Oraintxe aritu dira baserria eraberritzen eta, lan horiek burutzerakoan, agertu zaizkie antzinagoko jardueraren arrastoak ere: errotarriak, errotapea eta abar.

Aparteko saila merezi du, agian, **Olateko makineteak**. Obra galantak egin ziren duela ehun bat urte Arantzazu, Araotz, Urruxola eta beste auzo batzuetan, gaur egungoak baino baldintza askoz zailagoetan, **Arrasate-Bergarako Unión Cerrajerara** enpresarentzako ur-saltoen bitartez indar elektrikoa sortu ahal izateko. Inguruko **ur gehienak** bildurik, Olateko zentraleko **turbinei** eragiteko **lau hoditzarretan** jaitsarazi zituzten: Arantzazuko errota eta Zapatatik zehar iristen dena bata; Jaturabeko presa berritutik hartutakoak dakar-tzanak bigarrena; Araotzen Sara-txoko iturburu indartsutik jasoarazi eta, Haitzulo azpia zulatu ondoren, datorrena hirugarrena; eta, kilometro askoko malatuan urak batu eta gero, Aitzgain-Araoztako urtegitxotik behera amiltzen dena laugarrena.

Urte batzuetan geldik egin ostean, Oñatiko udalak erosi zizkion **Zerrajerari** ur-salto horiek 1989ko azaroan eta, konponketa sakon samarrak egin ondoren, abian dira berriro.

ARRIZABALAGA Aroztegia
Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA Altzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA Okindegia
Larralde auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 585 630 754
DNAT

Risemiko egia. egurrezko laparrak